

20

22



Jaialdia

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO  
ZINEMAREN ASTEA

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea **33** Semana de Cine Fantástico y de Terror

Urria 28 Octubre · Azaroa 4 Noviembre  
Donostia / San Sebastián · 2022



antzuola • ilustrazioa / ilustración: Carlos Fdez. (Perride)

[www.sansebastianhorrorfestival.eus](http://www.sansebastianhorrorfestival.eus)

Artolatzailea / Organiza



Babesleak / Patrocinan



Laguntzaileak / Colaboran



# Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

# 33

Beldurrezko Astearen 33. edizioaren hasieran, zalantzak ziren ikus-entzuleek nola hartuko ote zuten “normaltasunera” itzultzea, hots, gaueko ordutegiak berriro, bai eta bi urtez erabili ez diren gune batzuk ere, tartean zirela kalea eta topagune ludikoago batzuk.

Ikus-entzuleen erantzuna ezin hobea izan zen; izan ere, lehen aldiz urte askoan, salgai zeuden abonu guztiak saldu ziren, eta ikus-entzuleen kopurua azken bederatzi urteotako handiena izan zen. Eskaintza onaz gainera, emaitza horietan eragina izan zuten, ziur asko, zinemaldia jai-zubi luze batean gertatzeak, gazteek gero eta ohitura handiagoa izateak Halloween garaian beldurrezko filmak ikusteko, eta **Irati**ren tiradizoak, denboraldian ikus-minik handiena sortu duen euskal filma izan baita.



Inaugurazioa



Klausura



Irudiaren aurkezpena

**Paul Urkijoren** bigarren film luzeak, euskaraz errodatua hau ere, bidea ireki zion espainiar zinemaren uzta bikainari, bikaina hala formatu luzean nola laburrean. **Unicorn Wars** animazioa izan zen denboraldiko beste euskal produkzio garrantzitsu bat, eta bi horiei beste bost film labur gehitu zitzaizkien, hemen gertuko produkzioak denak ere. Ez da ahaztekoa Donostia Kulturak euskarazko **genero-sorkuntza**ren alde egindako apustuaren erabateko estreinaldia, **Azken partida** izenburukoarena alegia, bera izan baita **Oihua!** deialdiaren bigarren edizioaren emaitza.



Azokanibal

2022an, berriro egin ziren kaleko jarduerak, eta hori da beste era bat Astean aretoetara etortzeko ohiturarik ez dutenengana hurbiltzeko, hau da, hirira atera eta erakargarri gertatzea. **Azokanibal** izenaren pean, euskal kulturaren topikoak irauli ziren berriro, beldurraren estetika konbinatuta.

Urteko erakusketa paralelo handia, ezbairik gabe, Gipuzkoako Aldundiak **Luis Gasca** dibulgatzaileari omen egiteko bultzatutakoa izan zen, Okendo Kultur Etxean.



Arantza Sestayo erakusketa Liburutegia - Daenerys



Fuego Fatuo erakusketa Cripta - Akerbeltz

San Jeronimo kaleko aretoan, berriz, **Fuego Fatuo** madrildar artistak bere lehen erakusketa handia egin zuen, **Bestiario de lo inexplicable** izenekoa. **Arantza Sestayo** euskal herritarra izan zen **Euskadi Fantastikoa**ren azken edizioko protagonista, eta ilustratzaile askok eskaini zioten bere ekarpena banpirismoari **Odol tintan**. Ezin ahaztu beste omenaldi bat, Beldurrezko Astean Antzoki Zaharreko balkoia hainbat eta hainbat aldiz sormen handiz jantzi duen **Tito Saavedrari** eskainia, Tolosako **TOPIC**en.